

zebarri

Etxebarriko Udal Euskaltegiko ikasleek egina

1998ko maiatza



ALDIZKARI JAIO BERRIA


ETXEBARRIKO
UDAL EUSKALTEGIA

"Ezin
errezago"

MATRIKULA ZAITEZ

BEKOSOLO PARKEAN GAUDE

Tfno/Fax: 94 440 77 69



Zer iruditzen zaizu elizako letrero elektronikoa ?



Miguel Angel Herrero
Ikaslea

Ez da beharrezkoa. Hiletak karteletan ipintzen dituzte eta ezkontzak familiari bakarrik axola zaizkio. Ez da estetiko eta gainera diru horrek beste zerbaïtetarako balio du.



Aitor Moreno

Oso txarto dago, ez duelako ezertarako balio.



Maribel Arsuaga
Sukaldaritza ikaslea

Oso txarto iruditzen zait. Gastua oso handia da eta elizak dirua behar du.



Jesus M. Llona
Apaiza

Ezkontza bat edo kontzertu bat inoiz izango den letreroan ipiniko dugu. Ez dakit zergatik ez dagoen beste inon, oso modernoak garelako izango da.



Jose Atutxa

Ondo dago ipintzea, jendearen konformidatea hori bada.



Ainhoa Pueyo
Ikaslea

Gehiegi iruditzen zait. Diru asko inbertitu dute eta jende askok ez du begiratzen. Gainera ez da batere estetiko.



Toby
Ostalaria

Ez dauka ez buru ez hanka, lekuz kanpo dago. Udalak ez du dirurik eman behar horretarako, dirua elizak edo nahi duenak eman behar du, baina ez guztiok.



Mila
Saltzailea

Antiestetiko da, ezin da jarri letrero hori ehun urteko eliza batean. Herriko egunkaria dirudi.



Jose Alberto
San Antonioko apaiza

Modernoegia da antzinako eliza baterako. Gauza batzuk publikoki esatea ez da beharrezkoa.



Manuel Garces

Oso altu dago. Nik erlojua ere ez dut ikusten eta argi hori gutxiago.



Gainza
Langabetua

Ondo iruditzen zait, informazio guztia ematen hori gutxiago.



Loli Parada
Tabernaria

Ez da egokia elizaren estilurako.

Zebarri etxebarritarrok?

Esku artean daukazuen aldizkari hau Etxebarriko euskaltegiko ikasleok eginikoa da. Bertan aurkituko dituzuen artikulua maila desberdinetako taldeek prestatu dituzte.

Euskara astea denez gero, eta gure herrian euskararen egoera egokiena ez dela ikusita, aldizkaria argitaratzera ausartu gara. Beraz, aldizkaria irakurtzeak zuongan eragina izatea espero dugu, kalean euskera indarberitu dadin alegia.

Badakigu helburu hau lortzea ez dela oso erreza, hala eta guztiz ere nonbaitetik hasi beharko da eta gure honako aldizkari hau, aurrerantzako urrats bat izatea espero dugu.

Horretarako zuon iritziak edo artikulua jasotzea eskertuko genuke, aldizkari hau izaeraz zabala delako eta denon plaza ireki bihurtu nahi dugulako.

Zuen gustukoa izango delakoan, hurrengo alera arte

**Gurasoak euskara ikasten**

Etxebarriko zenbait guraso euskara ikasten ari dira euskaltegian. Elkarrizketatxo honetan ezagutuko dituzu eta agian... zeu ere animatu!!!

ZEBARRI: Astean zenbatero zoazte euskaltegira?

Bi egun eta egun bakoitzean ordu eta erdi. Astean hiru ordu.

ZB: Non dago euskaltegia?

Euskaltegia Etxebarriko Bekosolo parkean dago, baina San Antonioko kultur-etxean ere klaseak ematen dira.

ZB: Zergatik ikasi nahi duzue euskara?

Gustatzen zaigulako, seme-alabekin hitz egin nahi dugulako eta gure herriko hizkuntza delako. Gainera astia daukagu eta ondo pasatzen dugu.

ZB: Zer egiten duzue klasean?

Klasean ikasteko jolas egiten dugu, hitz egin, irakurri eta idazten dugu, baina... euskaraz noski.

ZB: Zer esan nahi duzu beste gurasoak animatzeko?

Euskaltegia etxe ondoan dago. Oso ondo pasatzen dugu, jende asko ezagutzen dugu eta gainera poliki-poliki ikasten dugu

Lehengo eta oraingo Etxebarri

Gure herriaren lehengo bizimoduaz jakin nahian, bizi osoa Etxebarrin eman duen Jose Luis Dobaranengana joan gara galdezka, eta berak herriaren historia kontatu digu, liburuetan agertzen ez den historia. Oso kontu bitxiak aurkituko dituzu ereportai honetan.

Etxebarrin hainbat baserri zegoen: Etorbidean, Legizamonen, Gangurengo bizkarrean eta Etxebarrin bertan (kaskoan).

Etorbidean bi baserri zeuden: Etxezarreta eta Etxebarrigoiti izenekoak.

Legizamonen dorretxea zegoen, gaur egun ere badena, hiruzpalau baserri eta Sta. Ana bolueta behi-granja.

Herriko errota, orain ondare historiko izendatua, oso famatua izan zen bere garaian. Pentsa, Ugao eta Arrankudiagatik ere jendea etortzen zen zereala ehotzera, inoiz ez zen urik falta hemen eta. Ehotzeari utzi ziotenean, Funcquimicak alokatu zuen alde bat.

Gangurengo bizkarrean zeuden baserriak, Tortasena, Gomesena, Larraga eta Larrondo, zutik dira eta



jendea bizi da. Oraindik ere badaude ganadudun baserri batzuk: Gomesenako Anton Elorrieta, Tortasenako Ramon Llaguno eta Oletako Larrabe. Denek dauzkate behiak.

Gaur egun Aceralia dagoen lekuan baserri bat zegoen. «Barrio chino» esaten zioten, eta herriko bizargina bizi zen bertan. Lantegia egiteko bota egin zuten baserritik.

Lezama-Legizamonera meatzeko hondakinak ekartzen zituzten, eta Labe garaiak egiteko lur hori hartu zuten. Gertaera honek zeresana eman zuen herrian, zeren eta lurra alde batetik bestera eramaten zuten kamioiek egokituta zeuden kale apurrak hautsi egin baitzituzten. Orduko alkateak,

Tobalinak, kaleen egoera txarra salatu zuen eta ordezkatua izan zen.

Hain zuen ere, hauxe izan zen Etxebarririk aldaketa handienak jasandako garaia. Lehengo Metacal egin zen. Ondoren Labe Garaiak eta Barrondo aldea eraiki zen. Han baserri batzuk bota zituzten: Arcelairena, Hipolirena, Urbizurena, Zarraberena eta postariarena. Ordurarte, lur gehienak Basconiarenak ziren. Gero, Labe Garaienak izatera pasa ziren.

Udaletxea

Aintzinako udaletxea oso dotorea zen. Herritarrentzat premiazko ziren hainbat



zerbitzu zeuden bilduta eraikin berean: eskola, botika eta nekazal-kooperatibaren biltegia. Pena izan zen herriko aditu handiek frontoiarekin batera bota izana. Perea arkitektoak udaletxe berria eraiki zuen balkoirik gabe, alkatea herriko jaietan pregoia botatzera atera dadin.

San Antonio

Antzina fruta-arbolak eta pinudiak baino ez zeuden gaur egun San Antonio den parajeen. Lurraren jabeak, Goirik, finakorredore andere biri saldu zien lurra, eta andreok partzelaka saldu zuten.

San Antonio lehenengo biztanlea Barrera deitzen zioten Basauriko gi^on bat izan zen. Egun Resbaloso taberna dagoen parean egurrezko txabola bat eraiki zuen. Bigarren biztanlea galiziarra izan zen: Pako bizargina.

San Antoniorako lehen bidea iz ez zen existitzen, eta auzokoen artean Baskoniatik altzairu-

kamioiak eramanda bidea egin zuten, «harrizko bidea» zeritzotena. San Antonioko emakumeak, bidea egoera txarrean zegoenez, botak jantzita jaisten ziren jaietara, txitxarrilora. Botak sasi artean ezkutatu eta oinetako dotoreak jantzita joaten ziren erromeriara.

Erromeriak

Etxebarriko erromeriak oso ezagunak ziren inguruan. Bilbotik eta Basauritik etortzen zen jendea prozesioan bezala. Udan izaten zirenez, jendea egunpasa etortzen zen, eta herriko lertxundietan bazkaltzen zuen. Erromerian nahikotxo dantzatu ondoren Boketeko bidetik joaten zen jendea Bilborantz eta beste herri batzuetarantz.

Presas

Presas egin zuten ura herrira eramateko eta baserrietan eta Ganguren bizkarrean bizi ziren

auzokoei errekatxoan arropa garbitzea debekatu zieten. Ondorioz, putzuak egin behar izan zituzten ura euren etxera eramateko. Presan zaindariak ipini zituzten debekua errespetatzen zela ziurtatzu ahal izateko. Urte batzuk geroago San Antonion ur depositoa egin zuten Oleta baserriaren aurrean, ur edangarria edukitzeko.

Uholdeak

83ko uholdeek kalte handiak egin zituzten Etxebarrin. Herriko hiru ume hil ziren euren etxea urak eramanda. Jende asko etorri zen laguntzera, eta herritarrek elkartasun handia erakutsi zuten.

Euskara


Orain dela 50 urte gehienek euskaraz hitz egiten zuten eta gaur egun 60 urtetik gorakoek badakite baina alfabetatu gabe daude. Umeez zorionez txikitatik ikasten dute euskara eskolan.

Gure herria ezagutuz

Gure herriko kaleetatik paseatzean pentsatu duzue inoiz zein den Etxebarriko eraikuntza zaharren jatorri eta historia? Guk bai, eta horrexegatik erreportaiatxo hau eskaini nahi diegu aspalditik begiratzen gaituzten eraikuntza ezezagun horiei. Asmo horrekin datu batzuk bildu ditugu hemen, Doneztebe eliza, Santa Ana ermita, Amezola jauregia eta Lezama-Legizamon errotari buruzkoak. Honetaz aparte atzera begiratzen badugu konturatuko gara gure herrian makinatxo bat eraikuntza aipagarri bazegoela orain disfrutatu ezin ditugunak.

Amezola jauregia

Manuel M^a de Smith-ek eginkoa da 1907. urtean eta estilo kubista du. Smith 1869an jaio zen eta arkitekturaren estilo «neoeuskaldun»a ezartzen saiatu zen. Oso ezaguna izan zen bere arkitektura eta hainbat eraikuntza edo erreforma utzi dizkigu, hala nola Getxoko Lezama-Legizamon jauregia edo eta San Mameseko futbol zelaiko palkoa.



Santa Ana basiliza

1740an eraikia, mila dukat kostatu zitzaion Errepublikari Enparantzan, udaletxearen aurrean egon zen kokatua, Amezola etxearen alboan. Bi uretako teilatua zeukan eta sarreran elizpea; barruan Santa Ana, Santiago apostolua, Loiolako San Inazio eta San Antonio Abaden irudiak zeuden. Loiolako San Inazio eta San Antonioren irudiak Jose Amezola jaunak opari egin zituen 1908an.

Uztailaren 26an Santa Ana eguna ospatzen zen, meza eta erromeria izaten ziren. Uztailaren 25ean, Santiago egunean ere meza izaten zen. San Antonio Abad egunean, urtarrilaren 17an, goizean eta arratsaldean meza ematen zen. Baselizaren atzeko aldean abereak bedeinkatzen ziren. Bai meza eta bai bedeinkapena Galdakaoko bi anaiartek antolatzen zituzten. Ehunen bat animalia elkartzeko omen ziren bedeinkapenean.



Ume bat hiltzen zenean baselizako kanpaia jotzen zuten. 1962ko ekainaren 23an Etxebarriko Udala eta bertoko apezka ados jarrita, baseliza botatzea eta elizari kalte ordaina ematea erabaki zuten. 1963ko apirilean hasi ziren baseliza

botatzen. Trafikoa ikaragarri hobetu zen. Hala ere, horrek herritarren haserrearekin piztu zuen; 1990ean Sabino Arana kalean, ibai ondoan, Santa Ana baselizaren berreraikuntza lanak hasi ziren.

Doneztebe Parrokia

Doneztebe parrokia Etxebarrin daukagun eraikuntzarik ederrenetarikoa dela esan genezake. Doneztebe lehen-martiriaren omenezko eliza Daniel de Escondrillas arkitekokoak eraiki zuen eta 1895eko urriaren 27an inauguratu, bedeinkatu eta zabaldu zuten. Izan ere, orain dela urte hiru urte Doneztebe parrokiak ehun urte bete zituen.

Hala ere, hasieratik ez zuen gaurko itxura eduki. 1907an Jose M^o Basterra eta Manuel M^o de Smith-en planoen eta egitasmoan oinarrituta gaurko itxurara moldatu eta handitua izan zen.

Elizaren barruan sartuz gero bertan dagoen ondare baliotsua aurki dezakegu: 1549ko testu aipamen batean dagoen mailuz landutako zilarrezko prozesio-gurutzea.

Ondare baliotsu honetaz aparte beste hainbese gauza miresgarriekin topo egin dezakegu elizaren barruan murgiltzean. Alde batetik, aldare nagusiko egurrezko gurutzea Areetako Guraya eskultoreak 1943an benetako



neurrian eginda. Beste alde batetik presbiterioa apaintzen duten margoak 1962an Ignacio Landa bilbotar margolariak egin zituen eta berrogeita hiru iruditan Donezteberen bizitza eta martirioa erakusten da. Aurrera jarraituz, eskuin eta ezkerreko nabeetako berrogeita bost metro karratuko muralak, Jose M^o Muñoz barakaldar apaizak egin zituen 1963an eta Ama

Birjinaren eta Bazko misterioak isladatzen dira beraietan. Bukatzeko kanpandorreko ezkielek hauxe daukate idatzita: «Sancta Barbara ora pro nobis, año de 1806». Erlojua udalarena da, 80ko hamarkadaren erdialdean jarrita eta lau doinu ezberdin dauzka

Lezama-Legizamon errota

Eugenio de Legizamon jaunak 1866. urtean errota zahar honetan irin lantegia eraiki zuen.

Nahiz eta lantegi honek ezaugarri bereziak izan, itxi egin behar izan zuten bere salgaiak garraiatzeko biderik ez zeukan eta.

Gauzak horrela, errota zahar hau paper lantegi bilakatu zen XIX. mendean.



Bizkargi mendia

Bizkaiko Foru Aldundiak duela urte batzuk mendi bizikletaz ibiltzeko bide batzuk egokitu zituen. Hauetako bat Bizkargi mendikoa da eta besteetan bezala, bidegurutze guztietan aurkituko ditugun karteltxoek bide zuzenetik eramango gaituzte; honetaz gain GR bideak definitzen dituzten seinaleak ere topatuko ditugu (marra gorri-zuriak). Oinez egiteko aurkituko dugun oztopo bakarra 20 kilometroko luzera izango da baina aldapa handirik ez dagoenez pazientzia piska bat besterik ez dugu beharko.

Ibilbidearen hasiera Morga-gainean kokatzen da. Bertan Bizkargi jartzen duen seinale bat dago; hala ere ez diogu jaramonik egingo. Errepide estu batek baserri batzuetaraino eramango gaitu eta txakurren zaunkek ohartarazita, hanga jendea hurbilduko zaigu gurekin mintzatu nahian.

Hortik aurrera bide ondoan ikusiko ditugun zuhaitzen ia %100 Monterrey pinua izango dira. Antzina euskal paisajearen ezaugarri bat hariztia zen, orain berriz haritz bakan batzuk besterik ez ditugu ikusiko. Udaberrian garbiketa lanak egiten dihardute udan suterik egon ez dadin. Garbiketa hauci esker inguruak ikus daitezke Urdaibai eskualdea, honen muga den Sollube eta Oiz mendia.

Faunari dagokionez, hegazti mota asko aurkituko dugu. Urtaro honetan birigarroek, txantxangorriek, eta zozoek ihes egingo dute gizakiok haien albotik igarotzen garela ohartzean. Jarrera hau ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu udazkenean ehiztariak direla harrapakaririk nagusienak.

Ibilbidearen azken partean sartuta Orofika auzunea ikusiko dugu. Bertara iristeko harrobi txiki batetik igaroko gara, non geologi perfila argi ikus daitekeen. Garai honetan tripa zorriak izango ditugu, beraz, herrian dagoen sagardotegia primeran etorriko zaigu.



Ase ondoren, bidearen zatirik gogorrenari aurre egin beharko diogu. Gora egiten duen bideak Bizkargiren tontorrera eramango gaitu, 560 metroko altuerara.

Handik metro batzuetara Santikurtz basiliza topatuko dugu. Bertan azken gerrateko bataila odoltsuenetariko bat gertatu zen. Leku horretatik Bilboko

«Burdinazko hesia» defendatzen ahalegindu ziren.

Aldapa bat jaitsi eta gero hasierako bidegurutzean izango gara eta txangoari amaiera emango diogu. Bizkaiko mendi historiko hau zeure gustukoa izango delakoan gaude, hala ere zuen esku dago hori egiaztatzea.



Ibilbidearen ezaugarriak

- LUZERA: 20km.
- HASIERA: Morga-gana. Larrabetzutik Gernikara doan errepideko mendatearen gaina.
- GAINBEHERA: 360 m.
- ZAILTASUNA: Txikia.
- ALDAPA HANDIENA: % 16, motz-motza

Etxebarrin ere badaude sirenak

Etxebarriko igerilekuetan igeriketa sinkronizatua ikasten ari da neskatxo talde bat. San Antonioko jaietan erakustaldi bat eskainiko digute, baina horren aurretik sirenatxoen berri zuei emateko, jakinminenez haiengana hurbildu gara.

Zer da igeriketa sinkronizatua?

Ballet akuatikoa egitea eta uretan dantzatzea. Hiru modalidade daude: zortzi laguneko taldeak, bikoteka eta bakarka.

Zer da beharrezkoa «sinkro» egiteko?

Lau gauza behar dira: igeriketa; pesak, indarra edukitzeko; dantza, flexibilitatea eta espresibitatea lantzeko eta musikarekin koordinatu, belarria landu.

Urpean entzuten da musika?

Ekipo berezi bat erabiltzen da urpean ipintzeko, baina ez da ondoegi entzuten. Entseiuetan irakasleak igerileku ertzean ematen dituen kolpeen bidez gidatzen dira.

Zenbat denbora eskaintzen diozue kirolari?

Lau ordutik sei ordutara astero.

Zergatik dabilta emakumeak bakarrik?

Flexibilitate handiagoa daukagulako eta estetikoki politagoa delako. Atzerrian badabilta gizon batzuk, baina gutxi.

Zein da adinik onena?

Sei urtetik gora, zenbat eta lehenago hasi hobea da.

Inguruko herrietan badago horrelako talderik?

Sestaon eta Trapagaranen. Donostian talde bat sortzeko asmoa dute, baina ez da ziurra.

Txapelketaren bat prestatzen ari zarete?

Ekainaren 14an erakustaldi bat egingo dugu. Orain ez gaude prest konpetizioak egiteko talde gutxi dagoelako inguru honetan, baina urte batzuk barru ziur baietz.

Zergatik animatu zineten igeriketa sinkronizatua egitera?

Uretako kirolak gogoko



ditugunez, pasa den urtean erakustaldia ikusi genuen eta gustatu egin zitzaigun.

Animatuko zenituzkete beste batzuk «sinkroa» praktikatzera?

Bai. Prest gaude neskak animatzeko asko ikasten delako. Nekatuta amaitzen dugu, baina merezi du.

Zaila iruditzen zaizue?

Bai. Flexibilitate eta zehaztasun handia izan behar dugulako.

Nola ikusten duzue taldearen etorkizuna?

Gu edozein kirol ekitalditan parte hartzeko prest gaude. Oso urruti heltzeko asmoa dugu eta ekipa on bat lortu nahi dugu.

Erakustaldia

Nola prestatu?

- Musika aukeratu
- Koreografia asmatu
- Musika ikasi ur kanpoan, eta pausu berak ikasi urpean.
- Musikarekin urpean
- Entseiu orokorra

Nola apaindu?

- Jantzi guztiek berdinak izan behar dute. Bainujantzia lentejuekin apaintzen da.
- Ilea gelatinarekin orrazten da eta mototsa egiten da.
- Sudurrean pintza jartzen da.

Patrizia Azpiazu margolaria: «Poza betaurreko urdinak dituen tristura da»

Orain dela 25 urte jaio zen etxebarritar hau, txikitatik hasi zen margotzen. Arte Ederretan sartzea lortu ez zuenez, bere kabuz eta ikastaroen bidez landu du bere estiloa. Orain dela hilabete batzuk erakusketa egin du Etxebarrin. Horregatik prestatu dugu elkarrizketa hau, bere lana ezezik bere izaera ere ezagut dezazuen.

Zer barri: Noiz hasi zinen?

Patrizia: Ezin dut zehaztu, betidanik egin dut.

ZB: Zein izan zen zure lehenengo koadroa?

P: Lamina batetik ateratako bodegoi bat izan zen.

ZB: Nola aldatu da zure lana?

P: Hasiara batean marrazkiei ematen nien garrantzia. Gero olio teknikan ihardun nuen. Gaur egun, material desberdinak erabiltzen ditut eta espresio teknika berriak bilatu eta erabili nahi ditut.

ZB: Zeintzuk izan dira zure ikasketak?

P: Ezin izan nuen egin neure gustuko karrera, Arte Ederrak. Horregatik, *Instituto de Nuevas Carreras* delakoan ikasi nuen, nahiz eta asko balio izan ez. Geroago serigrafia ikastaro bat egin nuen!

ZB: Inspirazioa nondik hartzen duzu?

P: Normalean nire prozesu kretiboa honetan datza: ideia batetik abiatuta, poliki-poliki landuz noa, borobildu arte. Dena den, esan behar dut, ez naizela esnatzen gauetan margotzeko amorrutik, ezta aluzinazioekin ere. Horrelako gauzak filmetan izaten dira.

ZB: ZEintzuk dira erabiltzen dituzun materialak?

P: Edozein materialek balio du...paperak, lurrak, olioak, egurrak, kolak, pinturak eta abar.

ZB: Zenbat denbora behar duzu koadro bat egiteko?

P: Normalean gaia eta itxuraren arabera izaten da. Baina ezin dut zehaztu, zeren koadro bakoitza desberdina baita.



ZB: Beste margolariekin baduzu harremanik?

P: Bai noski, baina hori lanbide guztietan izaten da.

ZB: Noraino ailegatu nahi duzu?

P: Hori ez da erraza esateko. Nik esango nuke, uzten didaten punturaino eta ez nik nahi dudana punturaino.

ZB: Zein kolore nahiago duzu?

P: Batez ere okreak eta kolore nabarrak.

ZB: Guggenheim museoari zer deritzozu?

P: Kanpotik lata bat dirudi. Barrutik oraindik ez dut ikusi. Hala ere, jende gutxiago dagoenean joango naiz.

ZB: Picassoren *Gernika* non kokatuta egon beharko luke?

P: Dudarik gabe Guggenheim museoan. Arrazoia, nire ustez, garbi dago: berari, Picassori, gustatuko litzaiokeelako.

ZB: Zaila da margolari ezaguna izatea?

P: Bai, oso zaila.

ZB: Zure azken erakusketako material nahasketa zergatik?

P: Lehen esan dudanez, espresio teknika zabalagoa izan dadin.

Margolari garaikideek horrela egiten dute, Tapiések adibidez.

ZB: Jendeak zure koadroak ikusten dituenean esanahia ulertzen du?

P: Argi dago norberak ikusten duena ulertzen duela, eta hor dago barietatea. Uste dut ez dela beharrezkoa margolariak ikusten duena ikustea.

ZB: Margolariok baduzue gobernuaren laguntzarik?

P: Ia-ia ezer ez. Orain Basaurin IKUSI ARTE tailerra antolatu dugu. Diru-laguntzak lortu nahi ditugu. Gure helburua gazteen artean artea indartzea da; eta horrekin batera gure lana ezagutaraztea, eta zergatik ez, saltzea.

Usain bat? belar ebaki berria
Errealitate bat? bakoitzarena
Estilo bat? modaren aurka
Koadro bat? nireen artean
edozein
Margolari bat? Roberto
Zalbide
Poza? betaurreko urdinak
dituen tristura
Amets bat? ustekabeak nahiago
ditut



ARGAZKI ZAHARRA

Hona hemen Etxebarriko futbol taldearen aspaldiko argazkia. Gure lehiaketan parte hartzeko argazkiko bost taldekideren izen-abizenak eskatzen dizkizugu. Lortzen badituzu bete azpiko txarteltxoa eta ekarri Udal Euskaltegira. Asmatzen baduzu opari sorpresa irabazteko aukera izango duzu.

Izen-abizenak:	Erantzuna:
Helbidea:	1-
Telefonia:	2-
	3-
	4-
	5-

Aldizkari hau egiten honako hauek lagundu digute:

MIKEL Autoeskola

ATUTXA Burdindegia

ABI Garagardotegia

MIKEL Erretegia

EUSKARA ASTEA

MAIATZAK 18, ASTELEHENA *euskal literatura eguna*

11:00 - 13:00 eta 16:30 - 19:30 Euskal liburuaren erakusketa San Antonio eta Bekosolo liburategietan (San Antonioko ordutegia: 16:30 - 19:30)

18:00 Txotxongiloak Kultur-Etxean

MAIATZAK 19, MARTITZENA

17:00 Antzerkia kultur Etxean: "Konintxuren Jakinmina", San Antonio ikastetxeko 4. mailako ikasleek eskeinita

17:30 Umeentzako zinea: "Ipar haizearen erronka" Kultur Etxean

19:30 Hitzaldia eta Diapositiba emanaldia Kultur-Etxean, Joserra Basaguren mendizaleak eskeinita. Gaia: "Goi Atlasa eta Basamortua"

MAIATZAK 20, EGUAZTENA

18:00 Soñualdeko ikasleen emanaldia: akordeoiak, euskal kantak, e.a. Soñualdeko lokalean (Bekosolo parkean)

MAIATZAK 21, EGUENA

11:00 Zinea eskoletako ikasleentzat Kultur-Etxean, filmea: "Haran sorginduaren bila"

18:00 Ipuin kontaketa eta komiki eta ipuin lehiaketen sari-banaketa. Barandiaran eskolako jantokian

MAIATZAK 22, BARIKUA

15:30 Zinea Kultur-Etxean (DBHko ikasleentzat), filmea: "Robin Hood, Lapurren Printzea"

20:00 Piano kontzertua Jerónimo Martinek eskeinita, Soñualdeko lokalean

23:00 Kontzertua: Inpernuko Auspoa, Lorelei eta Idi Bihotz

MAIATZAK 23, ZAPATUA
EUSKAL JAI TXIKI OTAEGI PLAZAN

18:00 Soñualdeko txistularien kalejira

18:30 Herri - kirolak

19:00 Euskal dantzak, Ostots Dantza-Elkarteak eskeinita

19:00 Talo dastaketa

21:00 Bertso-afaria jubilatuen egoitzan

23:00 Dantzaldia

SAN ANTONIOKO JAIK-98
Egunak 5, 6, 7 eta 12, 13, 14

JAI-MASKOTA

LEHIAKETA

*OINARRIAK:

- 1.- Deialdi honen helburua JAI-MASKOTA aukeratzea da.
- 2.- Lehiaketa honetan partehartzeko ezin bestekoa da Etxebarriko udalerrian bizi izatea.
- 3.- Lanak DIN A4 zein DIN A3 tamainukoak izango dira, erabiliko den teknika, koloreak eta abarrekoak libreak izanik.
- 4.- Lanak Etxebarriko Udalaren Kultura Sailean arkeztuko dira, epea 1998ko Ekainaren 15ean bukatzen delarik.
- 5.- Lanak egilearen izena agerian eraman beharrean, lema edo izenburu bat izango du. Lanarekin batera lema bera duen kartazal itxi bat aurkeztuko da, honen barruan egilearen datuak (izen-abizenak, adina, helbidea, eta telefono zenbakia) jarriko direlarik.
- 6.- 10.000 pezetatako saria jarri da, hau jaien lehelengo egunean emango delarik.
- 7.- Epaimahia Jai Batzordeko kideek osatuko dute, eta bere erabaki guztiak aldaezinak izango dira.
- 8.- Jai Batzordeak aukeraturiko maskota karteletan, propaganda guztian eta abarretan erabili ahal izango du.

ETXEBARRIKO JAIK-98
Uztailak 24,
Abuztuak 1

ANTOLATZAILEA
ETXEBARRIKO JAIK-98